

Copyrightik gabeko mundua imajinatzen

Copyrighta artistei diru sarrera egokiak bermatzeko bidea izan zen behinola. Benetan hala funtzionatzen zuen edo ez alde batera utzita -gehienek ez zuten sekula sosik atera eta gaur egun ere, ez diote zentimorik zor sistemari-, onartu behar dugu copyrightak oso bestelako helburua duela egungo munduan. Gaur egun musika, publizitate, irudi eta filmen industriako konglomeratuen tresna da, euren merkatuak kontrolatzeko. Eurek erabakitzen dute eurek harrapatu dituzten materialak besteek erabili ditzaketen edo ez. Eta baimenduz gero, zer baldintzatan eta zer preziotan. Europako eta Estatu Batuetako legeriak pribilegio hori alargunei ere hedatzen die - gutxienez hirurogeita hamar urte baditu-jatorrizko egilea hil ondoren! Ondorioak? Etengabe hazten ari den gure kultur adierazpenen zati bat pribatizatzea, hori baita, hain zuzen, copyrightak egiten duena. Zer gehiago? Kultura eta artea elkarrekin banatzeko eskubide demokratikoa astiro baina ziur kentzen ari zaizkigula.

Hala ere, gauza guztiz harrigarri bat ari da gertatzen gure begien aurrean. Internet bidez musika eta filmak elkar trukatzeko dituzten milioika pertsonak ez dute jada onartzen enpresa erraldoiek, hain zuzen, milioika doinuren *jabe* izatea. Beraz, digitalizazioa copyright sistemaren oinarriak berak karraskatzen ari da. Baina badira bestelako kezka batzuk ere. Esan bezala, artisten gehiengoak ez du irabazirik lortzen copyright sistematik. Sistema horrek, izan ere, izugarritzko kalteak eragin dizkie. Halaber, onartezina da sorkuntza kulturalak zerbitzatzen dizkiguten eran kontsumitu behar izatea eta hura biltzen duen papera eta edukia ere aldatzerik ez izatea. Hori dela eta, arrazoi ugari dugu copyrightaren *alternatiba* bideragarri bati buruz hausnarketa egiteko.

Gure ikuspuntutik, nolakoa izango litzateke copyrightaren kontzeptualizazio alternatibo hori? Alternatiba horretara iristeko, lehendabizi, artistak enpresaburuak direla onartu behar dugu. Euren gain hartzen dute lan jakin bat moldatu eta merkatu batean eskaintzeko ekimena. Beste batzuek ere euren gain har dezakete ekimen hori, adibidez, ekoizle batek edo, era berean, artistak kontratatzen dituen mezenas batek. Ekintzaile horiek guztiak gauza batean datoz bat: enpresa-arriskuak hartzen dituztela euren gain.

Copyrightak, hain zuzen, arrisku horiek mugatzen ditu. Kultur enpresaburua bere lanaren inguruan hesi babesle bat eraikitzeko eskubidearen jabe egiten da, hain zuzen, lana epe amaigabe batean ustiatzeko monopolioa. Babes horrek barne hartzen du, orobat, nola edo hala lanaren antza duen edozer. Bitxia benetan! Kontuan izan behar dugu, jakina, artelan ororen -telenobela baten, Luciano Berioaren konposizio baten edo protagonistatzat Arnold Schwarzenegger duen film baten- zati handiena beste batzuek egindako lanetik eratortzen dela, jabari publikotik, alegia. Originaltasuna kontzeptu

erlatiboa da. Munduko beste kulturetan, egungo Mendebaldekoan izan ezik, pertsona batek ezin du bere burua doinu, irudi edo hitz baten jabe izendatu. Hori dela eta, gehiegikeria hutsa da dohainik lan bati horrenbesteko babes ematea, jabetza titulua esleitzea eta arriskuetatik guztiz salbuestea, hori baita, hain zuzen, copyrightak eskaintzen duena.

Galde genezake ea geruza babesle hori benetan beharrezkoa den sorkuntza artistikoaren prozesua bilaka dadin. Hiru urrats dituen gure proposamenak hori ez dela horrela frogatuko du. Gure iritziz, zerk ordezkari dezake copyrighta? Lehendabizi, lan batek bere kasa saiatuko beharko du merkatuan, copyrightak eskaintzen duen luxuzko babesik gabe. Azken batean, merkaturatzen lehenak denbora eta arreta alde ditu. Proposamen honetan interesgarriena da kolpe izugarria ematen diela kultur monopolistei, copyrightaren laguntzaz, euren izarrak, film arrakastatsuak eta best-sellerrak merkatua monopolizatzeko eta artistek egindako gainerako artelanetatik arreta desbideratzeko erabiltzen dituztenak. Hori arazo handia da gure gizartearentzat, arte adierazpenaren forma aniztasunaren behar handia dugun honetan.

Zer bilakaera aurreikusten diogu kolpe hilgarri horri? Copyrightak eskaintzen duen geruza babeslea desagertuz gero, libreki ustiatuko dugu arte adierazpen guztiak eta gure pentsamoldearen arabera egokituko ditugu. Egoera guztiz desatsegina ekartzen die horrek kultur monopolistei, kultur produktu bakarrarekin erlazioa duten filmetan, liburuetan, elastikoetan eta bestelako salgaietan eskandaluzko moduan inbertitzen jarraitzeko pizgarria kentzen baitie. Azken batean, zergatik jarraitu behar dute inbertsio horiek egiten jada ez badira gai produktuak euren mende izateko eta oztoporik gabe ustiatzeko?

Eskuetatik ihes egiten die kultur merkatuan duten nagusitasunak. Gure proposamenaren ondorioz, kultur merkatua kultur monopolistarekin gabe geratuko da eta hainbat artistaren arteko lehia kultural eta ekonomikoak, berriro ere, bere bideari jarraituko dio. Horrek perspektiba berriak eskaintzen dizkio artista askori. Jada ez dira publikoaren ikusmenetik kanpo egongo eta horietako asko, lehendabizikoz, euren lanari esker ondo bizitzeko gai izango dira. Azken batean, aurrerantzean ez diote kultura erraldoien nagusitasunari aurre egin -eta mendean egon- beharrik izango, desagertu egingo baita! Merkatua normalizatu egingo da.

Jakina, gerta liteke arte adierazpen jakin batzuek hasieran inbertsio handien behar izatea. Hori da konponbidea aurkitu behar diogun bigarren egoera. Har ditzagun filmak edo eleberriak. Guk proposatzen dugu arriskatu behar direnek -artistek, ekoizleek edo mezenasek- izan dezatela mota horretako lanen gainean urtebeteko *usufruktua*, hain zuzen, jabari publikotik eratorritako lanen emaitzak erabiltzeko eskubidea. Azken batean, gure lehenengo adibidearen kasuan bezala, artelana jabari publikoarena izango da sortu eta berehala. Hemen azaltzen dugun bigarren egoeran, ordea,

desberdintasun bat dago. Arriskatu denak, kontuan hartzeko inbertsioa egin duenak, urtebete izango du lana ekonomikoki ustiatzeko. Horrek enpresaburuari bere inbertsioak berreskuratzeko bidea emango dio. Orduan ere, norberaren erabakia izango da inbertsio handiak egitea edo ez, adibidez, film bat egitea, baina inori ez zaio urtebete baino gehiagoko usufuktua bermatuko. Epea amaitzen denean, bakoitzak nahi duena egingo du lanarekin.

Konponbidea aurkitu behar diogun hirugarren egoera hau da: demagun arte sorkuntza jakin batek merkatu lehiakor batean, nahiz eta urtebeteko usufuktua izan, aurrera egiteko zailtasunak dituela. Gerta liteke publikoak oraindik horrekiko gustua garatu behar izatea, baina, hala ere, uste dugu, kultur aniztasunaren ikuspuntutik, lan horiei izateko aukera ere eman behar zaiela. Horretarako beharrezkoa da dirulaguntza dezente eta bestelako neurri pizgarriak ezartzea, izan ere, komunitate bat garen aldetik, era guztietako arte adierazpenei bidezko aukera emateko lana geure gain hartzeko irrikaz egon behar genuke.

Kultura monopolistak etsi-etsian sinestarazi nahi digute, copyrightik gabe ez dugula arte sorkuntzarik izango eta, beraz, ez dugula entretenimendurik izango. Horrek ez du zentzurik. Gehiago edukiko ditugu eta anitzagoak. Erraza da copyrightik gabeko mundua imajinatzea. Kultur ekoizpenaren *jokaleku berdindua*, hau da, guztion eskura dagoen merkatua, berriro ere ezarriko da. Copyrightik gabeko munduak artista askori irabazi onak bermatzen dizkio, ezagutzaren eta sorkuntzaren jabari publikoaren babesaren eskaintzen du eta guri, publikoa garen aldetik, honako hau eskura izateko eskubidea: alternatiba artistikoen menu aberats eta askotarikoa.

JOOST SMIERS *Arts Under Pressure. Promoting Cultural Diversity in the Age of Globalization* (Artea presiopean. Kultur aniztasunaren sustapena globalizazioaren garaian) lanaren egilea eta Utrecht School of the Arts-eko Artea eta Ekonomia Ikerketa Taldean, arteen zientzia politikoaren irakaslea da. MARIEKE VAN SCHIJNDEL politika aholkularia eta publizista da, eta kultur arloan egiten du lan. Artikulu honek bere iritzi pertsonalak besterik ez ditu islatzen.